

512/2024 EBAZPENA, martxoaren 19koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearen azaroaren 25eko 2236/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025ko urtarrilaren 16ko EHAA 10 zk. eta 2025eko urtarrilaren 22ko BOE 19zk.).

Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen urtarrilaren 30eko 198/2025 Ebazpenaren bidez, zuzendu egin dira lehiaketara deitutako lanpostuari eskatutako titulazioa eta II.2.5 atala. 2236/2024 Ebazpenaren eranskinekoa, azaroaren 25ekoa, Ospitaleko Farmaziako Osasun Ataleko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioaren Unitatea-Farmabide) betetzekoa (2025ko otsailaren 14 ko EHAA 31 zk. eta 2025eko otsailaren 24ko BOE 47 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025ko martxoaren 17an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barrualde-Galdakaoko ESiko Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) izeneko lanpostua




betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Barrualde-Galdakako ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakao, 2025eko martxoaren 19a.



Barrualde-Galdakako zuzendarri gerentea,
GEMMA FERNANDEZ VILLALBA



I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAOKO ESI-KO OSPITALEKO FARMAZIAKO ATAL
SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA (FARMAZIA SOZIOSANITARIOKO
UNITATEA-FARMABIDE) IZENENKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Beatriz Corcostegui Santiago and.

Baztertuak:

- Inork ez